



HEZKUNTZA SAILA  
Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailburuordetza  
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Universidades  
e Investigación  
Dirección de Política y Coordinación  
Universitaria

**EBAZPENA, 2023ko azaroaren 22koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2023-2024 ikasturterako unibertsitateko Ikasiker lankidetzaren beken deialdiaren ebazpen-proposamena ematen du.**

Hezkuntza sailburuak, 2023ko ekainaren 20ko aginduaren bitartez (2023ko ekainaren 29ko EHAA), Ikasiker lankidetzaren beken deialdia egin zuen, 2023-2024 ikasturterako unibertsitate ikasleentzat.

Agindu horren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera eraturako hautaketa-batzordeak, Ikasiker lankidetzaren beken deialdiari dagokion ebazpen-proposamena eman du.

Horregatik, aipaturako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

#### **EBAZTEN DUT:**

Lehenengo.- Jakinarazi, 2023-2024 ikasturterako unibertsitateko Ikasiker lankidetzaren beken deialdiko eskatzaileei, beka deialdiko ebazpen proposamena. I. eranskinean zerrendatzen dira esleipen-proposamena duten eskaerak, II. eranskinean ukapen-proposamena duten eskaerak, III. eranskinean ordezkoren zerrenda proposamena osatzen duten eskaerak eta IV. eranskinak eskaera guztiak biltzen dituen zerrenda bat du, ikerketa talde edo zentroaren arabera multzokatuak.

Bigarren.- 10 egun balioduneko epea ezartzea, eranskinetan zerrendatzen diren eskatzaileak beka ebazpen-proposamenari alegazioak aurkezteko edo prozeduran parte hartzeko atzera egiteko erabakia adierazteko.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan

Miren Artaraz Miñón  
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria